



OIARTZUNGO  
UDALA



ENERGIA  
eta KLIMA

# OIARTZUNGO KLIMA ETA ENERGIA PLANA

JARRAIPEN-PLANA  
2024-09-06

Proiektuaren izena: Oiartzungo Klima eta Energia Plana. Jarraipen-plana.

Erakunde onuradura: **OIARTZUNGO UDALA**

Aholkularitza-taldea: **IZADI 21 (Inguru 21, S.L.), LAIA Kooperatiba Elkarte Txikiarekin elkarlanean.**

Data: 2024-09-06

Jasotako dirulaguntzak: Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako proiektua<sup>1</sup>

---

<sup>1</sup> AGINDUA, 2022ko ekainaren 15ekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez Garapen jasangarria sustatzeko ekintzak egiten dituzten toki-erakundeei zuzenduta dauden dirulaguntzak onartzen baitira.

## AURKIBIDEA

<b>1.</b>	<b>SARRERA ETA AURREKARIAK .....</b>	<b>4</b>
<b>2.</b>	<b>KLIMAREN ETA ENERGIA IRAUNKORRAREN ALDEKO OIARTZUNGO PLANA .....</b>	<b>4</b>
<b>2.1.</b>	<b>PROZESUAREN DESKRIKAPEN OROKORRA .....</b>	<b>4</b>
<b>2.2.</b>	<b>EKINTZA-PLANAREN ESKEMA.....</b>	<b>6</b>
<b>2.2.1.</b>	<b>IKUSPUNTU ESTRATEGIKOA .....</b>	<b>6</b>
<b>2.2.2.</b>	<b>TOKIKO PLANAREN EGITURA.....</b>	<b>7</b>
<b>2.2.3.</b>	<b>HELBURU ESTRATEGIKOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZAK.....</b>	<b>7</b>
<b>2.3.</b>	<b>JARRAIPEN-PLANAREN EZAUGARRIAK .....</b>	<b>12</b>
<b>2.4.</b>	<b>EKINTZEN KARAKTERIZAZIOA: EKINTZEN DESKRIKAPEN FITXAK .....</b>	<b>15</b>

## 1. SARRERA ETA AURREKARIAK

2022 urtean sinatu zen Oiartzungo Udalaren eta Izadi 21 (Inguru 21 S.L.) enpresaren arteko kontratua, zeinaren bidez 2030 urtera begirako Klimari eta Energiari buruzko tokiko plana idazteko zerbitzua arautzen den. Bertan eta zerbitzua kontratatzeke plegu teknikoetan ezartzen den moduan, tokiko plana aurrera eramateko metodologia zehazteko asmoz, jarraipen-plana deritzona idatziko da. Hori dela eta, dokumentu honetan azaltzen da klimari eta energiari buruzko tokiko planaren kudeaketarako metodologiaren deskribapena.

## 2. KLIMAREN ETA ENERGIA IRAUNKORRAREN ALDEKO OIARTZUNGO PLANA

### 2.1. PROZESUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Ekintza-plana diseinatzeko prozesua honela gauzatu da:

1. **Diagnostikoaren idazketa:** 2022ko udazkenean diagnostikoa idazteko lanak hasi ziren eta diagnosiaren lehenengo bertsioa 2023ko martxoan osatu zen. Jarraian, udaberrian zehar diagnosiaren osaketa lanak egin ondoren, diagnostikoaren azken bertsioa urrian amaitu zen eta 2023ko udazkenean antolatutako herri batzarrean herritarrei aurkeztu zitzairen. Horrela, ekintza-plana diseinatzeko fasera igaro zen prozesua.
2. **Parte-hartze prozesuaren garapena:** udal barruan eta herriko sektore ezberdinekin parte-hartze modu ezberdinak eraman ziren aurrera (horietako batzuk aurrez aurrekoak izan ziren eta besteak baliabide digitalen bidez gauzatutakoak).  
Aurrez aurrekoei dagokionez hauek izan ziren:
  - **Sektore zehatzei zuzendutako elkarrizketa-saioak:** 2023ko martxoan antolatutako saioetan 6 pertsonen parte hartuko zuten orotara, 3 sektore ordezkatzuz: Behemendi eskualdeko landa-garapen elkarteak, hezkuntza-komunitatea (Elizalde BHI eta Haurtzaro ikastola) eta auzo-elkarteak (Ergoien auzoko Auzokalde elkarteak).
  - **Udal barruko energia mahaia:** prozesua udal barruan gidatu duen organoa izan da eta behar den aldietan bildu izan da. Bertako kide izan dira udal jarduerari lotutako energiaren kudeaketarekin nahiz plangintza energetikoarekin zerikusia duten teknikariak eta udal ordezkariak.
  - **Herri-bilera:** 2023ko abenduan herritarrei diagnostikoaren ondorio nagusiak eta ekintza-planaren hasierako bertsioa aurkeztu zitzairen bileraren lehen zatian. Ondoren, herritarren ekarpenak jasotzeko asmoz, bertaratutakoek ekarpenak jasotzeko 2 talde antolatu ziren (horietako batean klima-aldaketa arintzera

zuzendutako ekintzak proposatu zituzten eta bestean, ordea, klima-aldaketa egokitzera zuzendutakoak). Ekarpen horiek guztiak 2024ko martxoan udalari igorritako ekintza-planaren bertsio berrian jaso ziren.

Bide digitalen eta bestelako bide osagarrien bidez (auzoetako idatzizko inkestak) ondorengoak antolatu ziren:

- **Herritarrei bideratutako online galdetegiak:** 2023ko udan zehar erantzuteko aukera izan zuten herritarrek. 4 erantzun jaso ziren.
- **Auzoetan eskura egon ziren galdetegiak:** 2023ko udan zehar erantzuteko aukera izan zuten herritarrek eta 12 erantzun jaso ziren.

### 3. **Diagnostikoan antzemandako behar nagusiei erantzun egokia eman eta sustatu beharreko indarguneetatik abiatuz, Klimari eta Energiari buruzko Tokiko Plana lantzea:**

Ekintza-plana lantzerako orduan diagnostikoaren ondorioak oinarritzat hartzeaz gain, honakoak ere aztertu ziren ekintza-planaren idazketa faseko une ezberdinetan:

- Udal eragileekin eta herritarrekin antolatutako parte-hartze prozesutik eratorritako ekarpenak.
- Indarrean dagoen legedia (azpimarratu behar da 2024ko otsailean indarrean sartu zela klima-aldaketaren eta energia jasagarriaren Euskadi mailako 1/2024 legea).
- Indarrean dauden arloko planak eta estrategiak (udal mailakoak -Mugikortasun plana, esaterako- nahiz udalaz gaindikoak -Oarsoaldea eskualdeko II. Energia-plana, Klima Aldaketaren Euskadiko eta Gipuzkoa Estrategiak, eta abar-).

### 4. **Prozesu osoan zehar behar bezalako komunikazioa lantzea:**

- Prozesuaren irudiaren sorrera eta dokumentu ezberdinetan txertatzea.
- Prentsa-oharrak.
- Udal web orrian klima eta energiaren tokiko planari buruzko informazioa barneratzea ([https://www.oiartzun.eus/eu/Ingurumena\\_eta\\_Landa-eremua/Klima\\_eta\\_Energia](https://www.oiartzun.eus/eu/Ingurumena_eta_Landa-eremua/Klima_eta_Energia))
- Abiapuntuko egoera deskribatzen duen Oiartzungo energia eta klimaren diagnostikoaren laburpena.
- Ekintza-plana herritarren aurrean aurkezteko eta hauen ekarpenak jasotzeko saiora gonbidatzeko asmoz prestatutako bideoa (<https://www.youtube.com/watch?v=424ermQa94c&t=1s>).
- Egindako ibilbidearen, diagnostikoaren ondorio nagusien eta ekintza-planaren aurkezpena herritarrei.

### 5. **Jarraipen-planaren idazketa:** klimaren eta energiaren tokiko planaren edukia aurrera eramateko eta bere ezarpen-maila ebaluatzeko metodologia proposatzen duen dokumentua da. Bertan, ekintza-planean barneratutako ekintza bakoitzaren deskribapen fitxak biltzen dira, ekintzen ardura duten udal eragileek ekintzaren edukia garatzeko orduan zenbait orientabide eskuartean izan ditzaten (ekintzak gauzatzen lagun dezaketen jarduerak, ekintzak aurrera eramateko epea, eta abar.). Era berean, ekintza-

plana urtero ebaluatu ahal izateko udalek duten baliabide-sorta ere jasotzen du (1/2024 Legeak finkatzen du plan hauek gutxienez 2 urtean behin ebaluatu behar direla).

## 2.2. EKINTZA-PLANAREN ESKEMA

### 2.2.1. IKUSPUNTU ESTRATEGIKOA

Planaren helburuak lortzeko jarraitu nahi den norabidea definitzen du ikuspegi estrategikoak. Oiarzungo ikuspegiari dagokionez, udala, herriko eragileekin elkarlanean, 2030era begira **klimaren aldeko ekintzan** dihardu, **klima neutraltasuna** lortu eta **erresilientzia** handitzeko bidean.

Era berean, udalak udalerriko **energia-eraginkortasuna** sustatu nahi du, berotegi-efektuko gasak **arintzeko** asmotan etxebizitza, ekonomia-jarduera, mugikortasuna eta lehen sektore eta elikaduran **energia-aurreztuz** eta autokontsumorako energia **berriztagarrien erabilera bultzatuz**. Halaber, udal ekipamenduen energia-eraginkortasuna eta aurrezpena bultzatu nahi ditu, herriko sektore ezberdinen aurrean eredugarri izateko.

Klima-aldaketaren aurrean Oiarzun **erresiliente** bihurtu nahi da lurralde, natura-ingurune, lehen sektore eta arriskuen ikuspegitik, gerta litezkeen uholde arrisku eta lehorten inpaktuetara egokituz eta herritarren osasuna eta segurtasuna bermatuz. Hori **guztia trantsizio ekosozialaren aldeko pauso irmoak emanez herritarrekin eta sektore ezberdinekin elkarlanean**.


Ikuspegi hori aintzat hartuz, ondorengo **4 Helburu Estrategikoak** zehaztu dira:

1. HE: OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA-TRANSIZIOAN
2. HE: UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA-ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA
3. HE: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEN DUEN HERRIA
4. HE: KLIMA-ALDAKETAREN INPAKTUEN JARRAIPENA EGITEN DUEN ETA BEHARREZKO KONPROMISO KLIMATIKOA ERAKUSTEN DUEN HERRI ERRESILIENTEA

1. Taula: Klimaren eta Energiaren tokiko planaren helburu estrategikoak

## 2.2.2. TOKIKO PLANAREN EGITURA

Plana lehen aipatutako helburu estrategikoetan antolatzen da. Era berean, helburu estrategiko hauetako bakoitza jarduera-programetan banatzen da. Programak, helburu estrategikoak lortzen laguntzen duten helburu zehatzagoak dira. Azkenik, programak ekintzez osatuta daude:



## 2.2.3. HELBURU ESTRATEGIKOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZAK

Klimaren eta energiaren tokiko plana osatzen duten 73 ekintzak horrela antolatzen dira:

### 1. HELBURU ESTRATEGIKOA: UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA-TRANSIZIOAN

#### 1.1. UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA

- 1.1.1. Udalaren titulartasuneko eraikinen, ibilgailuen eta argiteria publikoko instalazioen inbentarioaren nondik norakoak zehaztea eta inbentarioa indarrean dagoen araudiak ezartzen duen moduan osatzea.
- 1.1.2. Egiteke dauden 11 eraikinen kalifikazio energetikoa osatzea.
- 1.1.3. Udal eraikin handienetan ziurtagiri energetikoak berrikustea eta dokumentu horiei dagozkion moldaketak egitea.
- 1.1.4. Udal eraikin guztien kalifikazio energetikoak osatutakoan, B azpitik daudenetan gutxienez kalifikazio hori lortzeko plangintza bat prestatzea, 2030 urtea baino lehen helburu hori lortzeko.
- 1.1.5. Udal eraikin guztietan kalifikazio energetikoaren etiketa ikusgai jartzea.

- 1.1.6. Eraikin guztietan energia auditoretzak egiteko plangintza bat definitzea eta beharrezko direnak gauzatzea, kontsumo altuena duten eraikinak lehenetsiz.
- 1.1.7. Auditoretza beharrik ez duten baina kontsumo altukoak diren lokaletako energia kontsumoen kontrola aurrera eraman.
- 1.1.8. Elorsoro kiroldegiko energia kontsumo elektrikoa eta termikoaren kontrola sistematizatzea.
- 1.1.9. Elorsoro kiroldegiko kanpoko piszinek eragiten duten gehiegizko energia-kontsumoa murrizteko neurriak martxan jartzea.
- 1.1.10. Kale-argiteria publikoa LED teknologiarara aldatzen jarraitu.
- 1.1.11. Etorkizunean udalak gauzatu ditzakeen birgaitze integraleko inbertsioetan edo udal eraikin berrien kasuan, kontsumo ia nuluko eraikinak izatea bermatzea.
- 1.1.12. Edozein ekipo, tresna, produktu edo sistema eskuratzeko beharra dagoenean, energia-eraginkortasun altuenekoa izatea bermatzea.
- 1.1.13. Eraginkortasun energetikoari eta eraikinetan energiaren erabilera arduratsuari buruzko prestakuntza eskaintzea udal-langileei nahiz udal-hautetsiei.

## **1.2. UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EZARPENA AREAGOTZEA**

- 1.2.1. Oiartzungo energia beharrak energia berriztagarrietatik asetzeko dauden aukerak aztertzea.
- 1.2.2. Elorsoro kiroldegian autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa jartzea.
- 1.2.3. Elorsoro kiroldegian autokontsumorako eguzki-instalazio termiko berria jartzea.
- 1.2.4. Basoen ustiaketa jasangarriaren bidez udal eraikinetan edo herriko beste sektoreetan erabili daitezkeen baliabide energetikoen bideragarritasuna ikertu.

## **2. HELBURU ESTRATEGIKOA: UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA-ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA**

### **2.1. ETXEBIZITZEN SEKTOREAN ENERGIAREN ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA KALTEBERATASUN ENERGETIKOAREN EGOEREI AURRE EGITEA**

- 2.1.1. Etxebizitzak irizpide bioklimatikoen eta energia-jasangarritasun irizpideen arabera eraikitzeke neurriak aztertu eta ezarri.
- 2.1.2. Etxebizitza-eraikinen birgaitzean energia-eraginkortasuna sustatu.
- 2.1.3. Baldintza oso kaxkarretan dauden etxebizitzak eta egoera zaurgarrian dauden familien egoera hobetzeko udal laguntzak indartzea.
- 2.1.4. Oarsoaldeko Energia Bulegoak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruko informazioa herritarrei iristeko neurriak martxan jartzea.
- 2.1.5. Herrian bertan eragile ezberdinek egiten dituzten energiaren arloko inbertsioak ezagutarazi eta praktika on moduan komunikatu auzo ezberdinetan.



## **2.2. EKONOMIA-JARDUERETAN ENERGIAREN ERAGINKORTASUNAREN ETA BERRIZTAGARRIEN ALDEKO APUSTUA EGITEA ERRAZTEA**

- 2.2.1. Udalerriko enpresetan eta saltoki txikietan energia kudeaketarako tresnak eskuragarri jartzea, beraien energia-beharrak aztertzei aukerak erraztea eta irtenbide komunak bilatzea nahiz garatzen laguntzea, eskualdeko garapen agentziarekin elkarlanean.
- 2.2.2. Oiartzungo industria sektorearen energia kontsumoa eta BEG isurpenak aztertu eta eraginkortasuna hobetzeko egon daitezkeen baliabideen berri eman Oarsoaldea garapen agentziarekin lankidetzan.
- 2.2.3. Lehen sektorearekin lotutako ekoizpena egiten duten zenbait baserritan energia auditoretzak egitearen bidez lehen sektorearen energia kontsumoen azterketa osatu eta nekazari eta abeltzainekin batera gastu energetiko eta ekonomikoa murrizteko neurriak adostu.
- 2.2.4. Autokontsumorako energia berriztagarriak ekoizteko sistemak martxan jartzen laguntzeko baliabide ezberdinak aztertzea eta bideragarriak direnak ezartzera bultzatzea.
- 2.2.5. Energia berriztagarrien arloan indarrean dauden hobari fiskalen berri ematea sektore ezberdinei.
- 2.2.6. Energia-komunitate berriztagarrien sorrerari eta horien garapenari bultzada eman eta garapenean lagundu.

## **3. HELBURU ESTRATEGIKOA: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEN DUEN HERRIA**

### **3.1. MUGIKORTASUN IRAUNKORRA SUSTATZEA**

- 3.1.1. Udal-langileen artean telelanerako aukera erraztu, joan-etorriak ekiditeko.
- 3.1.2. Garraio partekatua sustatu bai herritarren bai udaleko langileen artean.
- 3.1.3. Udal ibilgailu elektrikoaren kontsumoen kontrolerako kontadore zehatza ezartzea.
- 3.1.4. Udalaren ibilgailu-flotaren mantenu- eta eraberritze-plangintza bat definitzea.
- 3.1.5. Oinezko eta bizikleta bidezko joan-etorriak sustatzeko neurri ezberdinak aztertu eta martxan jarri.
- 3.1.6. Bizikletaren erabilera bultzatzeko asmoz herritarrei eskaintzeko aukera ezberdinak aztertu eta bideragarriak direnak martxan jarri.
- 3.1.7. Motordun ibilgailuaren erabilera arduratsua bultzatzeko asmoz, alternatiba ezberdinak mahai gainean jarri eta horien inguruko eztabaida publikoa sustatu.
- 3.1.8. Garraio publikoaren aldeko udal apustua sendotu.
- 3.1.9. Hiri-mugikortasun jasangarriko plana idazteko lanak osatzea eta planeko ekintzak martxan jartzea.

### **3.2. ELIKADURA BURUJABETZARAKO KONPROMISOA**

- 3.2.1. Elikadura burujabetzaren alde abiarazitako ekimenekin eta dirulaguntzekin aurrera egitea, orain arteko ibilbideari eutsiz eta ekimen berriak abiaraziz.
- 3.2.2. Abeltzaintzan ekoizpen ekologikoa pixkanaka txertatzeko prestakuntza eta laguntza eskaini bertako abeltzainei.
- 3.2.3. Epe motzeko zirkuituan Oiartzungo abeltzainen ekoizpena merkaturatzeko aukerak aztertu.
- 3.2.4. Lehen sektorean ekoizpenari lotutako ur-eskari handia duten establezimenduetan ura aurrezteko sistemak ezarri eraginkortasuna handitzeko.
- 3.2.5. Lur-maneia hobetzeari buruzko prestakuntza eskaintzea laborantza-sektoreko eragileei.
- 3.2.6. Oiartzungo nekazari eta abeltzainekin haur eta nerabeei zuzendutako ekimenak prestatu lehen sektorearen garrantziaz jabetzeko.
- 3.2.7. Urmendi haur-eskolarekin egin zen moduan, hezkuntza sektoreko jangela kolektiboetan herrian bertan ekoiztako produktuak txertatu ote daitezkeen aztertu eta txertatze hori bultzatu.
- 3.2.8. Bestelako sektoreetako jangela kolektiboetan herrian bertan ekoiztako produktuak txertatu ote daitezkeen aztertu eta txertatze hori bultzatu.

### **3.3. KLIMA BABESTEARI LOTUTAKO UDAL GOBERNANTZA ETA KUDEAKETA-EREDUA GARATZEA**

- 3.3.1. Urtero Udalaren eta udalerriko sektoreen Berotegi Eftukoko Gasen isurpenen azterketa egitea, energia eta klima-aldaketaren ekintzaren ezarpenetik aurrera isurpenen murrizketa gertatzen den behatzeko eta dagozkion neurriak aplikatzeko.
- 3.3.2. Udalaren eta udalerriko sektoreen Berotegi Eftukoko Gasen isurpenen bilakaeraren berri ematea, bai udal barruan nahiz herri mailan.
- 3.3.3. Airearen kalitatean eragiten duten atmosferaren kutsatzaile nagusien jarraipena egin eta eskumena duten erakundeekin lankidetzan arituz hobekuntza-neurriak bultzatu.
- 3.3.4. Haurtzaro ikastolan eta Elizalde Herri Eskola eta Institutuan klima-aldaketaren eta energia eraginkortasunaren inguruko formakuntza eta sentsibilizazio kanpainak indartzea.
- 3.3.5. Udaleko web-orrian energia eta klima-aldaketari dagokion atala sortzea eta arlo horretan egiten diren jarduketan berri ematea herritarrei.

### **3.4. EKONOMIA ZIRKULARREAN SAKONTZEA**

- 3.4.1. Ikastetxeekin elkarlanean jangeletako janari-xahutzeari irtenbidea emateko ekimenak adostea eta martxan jartzea.

- 3.4.2. Herriko HORECA arloko eragileekin batera establezimenduetan hondakinen prebentzioan sakontzeko egitasmoak garatu.
- 3.4.3. Herriko gainerako sektoreekin garatu daitezkeen proiektuen inguruko lanketa bat abiarazi.
- 3.4.4. Hiri-hondakinak sortzeagatiko tasa ezartzeko asmoz beharrezkoak diren egokitzapenak egin.
- 3.4.5. Hiri-hondakinak jasotzeko atez ateko sistema berrikustea, bai hondakinak sortzeagatiko tasa ezartzeko baita gaikako bilketa-datuak hobetzen jarraitzeko ere.
- 3.4.6. Barreiatutako hondakinen arazoei aurre egiteko neurriak ezarri.
- 3.4.7. Herrian bertan kudeatzen den hondakin organikoaren ehunekoa handitzeko asmoz, udalak bultzatutako konpostaje-programa berrikusi eta berau indartzeko azterketa bat egin.

#### 4. HELBURU ESTRATEGIKOA: KLIMA-ALDAKETAREN INPAKTUEN JARRAIPENA EGITEN DUEN ETA BEHARREZKO KONPROMISO KLIMATIKOA ERAKUSTEN DUEN HERRI ERRESILIENTEA

##### 4.1. ARRISKUAK ANTZEMAN ETA HORIEI AURRE EGITEA

- 4.1.1. Ibaiertzeko eremuetan gerta litezkeen uholdeen eragina aztertzea eta kalteberak diren eremuetan babes-elementuak sartzea, Ura Euskal Agentziarekin partekatuz eta indarrean dagoen ibai-uholdeei buruzko plangintzarekin koordinatuz.
- 4.1.2. 2019an udalak egindako “Elikagaien kontsumoa eta lur-ondarea” azterketatik abiatuz, azken urteetako bilakaera aztertu eta lehorteen aurrean lehen sektorea babesteko neurriak hartu.
- 4.1.3. Mapa termikoa egitea, freskatzeko baliagarriak diren gunekak identifikatuz eta eremu negatiboak bero boladetara egokitzuz biztanleria kalteberarentzat baliabide gisa.
- 4.1.4. Klima-arriskuak udalak bultzatutako politiketan txertatzea, biztanleria kalteberenari arreta berezia eskainiz.
- 4.1.5. Herritarrek beroaren aurrean babesteko erabili ditzaketen udal eraikinak aukeratu.
- 4.1.6. Parke naturala eta Kontserbazio Bereziko Eremua den Aiako Harria parkeak klima-aldaketaren aurrean duen arriskua aztertzeko eta babes neurriak ezartzeko beharrezko lankidetzak-sareak bultzatu, eskumena duten erakundeekin.

##### 4.2. UDALERRIAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA

- 4.2.1. Udalerriko parke eta lorategiak klima-behar berrietara egokitu.
- 4.2.2. Lanbarren industria gunea naturalizatzeko edo berdatzeko proposamenak landu.
- 4.2.3. Oiarzungo udalerrriak duen espezie autoktonoen azpiegitura berde-urdina sendotzen jarraitzeko udal eskumenen araberako estrategia bat landu, besteak beste, hiri-plangintzan aintzat hartzeko.
- 4.2.4. Biodibertsitatearen zaintzan eta klima-aldaketaren egokitzapenean oinarritutako baso-politikak ezar daitezten lan egin, beharrezkoa den erakundeekin elkarlanean arituz.

- 4.2.5. Udal hirigintza-plangintzako tresnetan klima-arriskuaren analisia eta klima-aldaketara egokitzea txertatzea.
- 4.2.6. Larrialdi, babes zibil eta segurtasun arloko udal planetan klimaren aldagaia txertatzea.
- 4.2.7. Suteak prebenitzeko programak hobetzea.
- 4.2.8. Klima-aldaketaren ikuspegitik kritikoak diren azpiegituren gaineko arriskuak murrizteko plana lantzea.

### 4.3. KLIMA-ALDAKETAREN GAIAN UDAL BARNEKO PARTAIDETZA ZEIN HERRITARREN PARTE-HARTZEA AKTIBATU

- 4.3.1. Klimaren aldeko gobernantza eraginkorra izateko udal-egitura aproposa landu.
- 4.3.2. Herritarrak klima-aldaketari lotutako udal-politiketan bidelagun izateko mekanismoak aztertu eta bideragarriak direnak ezarri.

## 2.3. JARRAIPEN-PLANAREN EZAUGARRIAK

Klima eta energiaren tokiko planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko metodologia proposatzen duen dokumentua da. Bertan, ekintza-planean aurrera eramango diren pausoen inguruko informazioa eta epeak zehazten dira. Azken honi dagokionez, ekintzak abian jartzeari dagokionez, honako epeak ezarri dira:

- Epe laburra: 2024-2025 artean egiteko edo behintzat hasteko direnak.
- Epe ertaina: 2026-2027 urteetan garatzen hasteko ekintzak.
- Epe luzea: 2028-2030 urteetan garatzeko ekintzak.

Klima eta energiari buruzko tokiko planen ebaluazio eta jarraipena egiteak bultzada emango dio Udalak hartutako konpromisoen eta arauzko betekizunen gauzatze mailari. Klima eta energia iraunkorraren aldeko Oiartzungo planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko, jarraian zehazten diren **zereginak** eta hauek aurrera eramateko **tresnak** jasotzen dira:

1. **Planaren urteko gauzatze maila ebaluatzea:** planaren urteko betetze-mailaren ebaluazioa egitea, Udalsarea 2030eko udalerrri guztientzat estandarizatutako metodologia komun bat erabiliz; hau da, e-mugi tresnaren “ebaluazioa” atalaren bitartez. Modu honetan, emaitzen irakurketa global eta partziala egitea ahalbidetzen du, eta baita, Garapen Jasangarriko Helburuei egiten zaien ekarpena aztertzea ere. Aipatzekoa da 2023 urtean lhobek eskaini zuela aurrenekoz klimaren eta energiaren tokiko planak ebaluatzeke zerbitzua. Ondorioz, aurrerantzean Oiartzungo Udalak aukera izango du klimaren eta energiaren tokiko plana emugiko atal hori baliatuz ebaluatzeke eta ebaluazioaren emaitzak aztertuz, honakoak gauzatzeke:

- ✓ Planaren berrikuspena: 1/2024 Legearen 18. artikuluan ekintza-planak 2 urtean behin ebaluatu eta jarraipena egin behar dela ezartzen du (“e. Planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko arauak. 5.000 biztanletik gorako udalerrietako

udalen kasuan, bi urtean behin, beren planen betetze-mailari buruzko txosten bat egin eta onartu behar dute.”).

- ✓ Jarduerak hurrengo urteetarako programatzea.

DATU OROKORRAK ETA ERAKUNDEAK **PLANGINTZA ETA KUDEAKETA** ADIERAZLEAK / PARAMETROAK TXOSTENEN ZERRENDA LABURPEN TXOSTENA

Tokiko Ekintza Plana (TEP)

Epea: Aukeratu Lehenetasuna: Aukeratu Ezarpen-maila: Aukeratu

Arduraduna: Aukeratu Gai-arloa: Aukeratu GJH: Aukeratu

Sektorea: Aukeratu Ardatza: Aukeratu


BILATU EZABATU IRAGAZKIA

ZABALDU ZUHAITZA ITXI ZUHAITZA ZUTABEAK ERAKUTSI ESPORTATU

Kod	Ekintzaren izena	Gai-arloa	GJH	Ardatza	Sektorea

1 Udala (Continued on the next page)

1.1 Energia efizientzia (Continued on the next page)



1. eta 2. Irudiak: Planaren urteko gauzatze maila ebaluatzeko e-mugi tresnaren ebaluazioa atala.

- 2. Emaitzen jarraipena egitea adierazleak oinarritzat hartuta:** Garapen Jasangarriaren Udal Adierazleak urtean behin kalkulatzea, adierazle hauen bilakaera aztertzea eta EAEko batez besteko balioekin alderatzea. Horretarako, Udalsarea 2030eko udalerrri guztientzat eskuragarri dagoen e-mugi tresnaren “adierazleak” atala erabili daiteke.

DATU OROKORRAK ETA ERAKUNDEAK    PLANGINTZA ETA KUDEAKETA    **ADIERAZLEAK / PARAMETROAK**    TXOSTENEN ZERRENDA

PARAMETROAK    **ADIERAZLEAK**    BEG PARAMETROAK

Sistema:  Gai-arloa Ikuspegi     GJH ikuspegi

**BILATU**    **EZABATU IRAGAZKIA**

**ZABALDU ZUHAITZA**    **ITXI ZUHAITZA**    **ZUTABEAK ERAKUTSI**    **BALIOAK ESPORTATU**    **ESPORTATU**

	Adierazlea	Mota	Iturria	GJH
- 01 LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA				
<b>IKUSI</b>	01_01 Lurzoru artifizializatua	Oinarritzkoa	Udalaz gaindikoa	11 Hiri eta komunitate jasangarriak
<b>IKUSI</b>	01_03 Bizitegi-lurzoruaren erabileraren intentsitatea	Oinarritzkoa	Tokikoa/ Udalaz gaindikoa	11 Hiri eta komunitate jasangarriak

#### Adierazlea

03\_02 Hiri-autobusa erabiltzen duen bidaiari kopurua

bidaiari kopurua

GEHITZEA

#### Definizioa:

Hiri-autobusa erabiltzen duen bidaiari kopurua.

#### Metodoa:

Hiri-autobusa erabiltzen duen bidaiari kopurua

#### Iturri:

Tokikoa

#### Balioa Ref:

Gai-arloa:

03 MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA

#### Formula:

$n(13)$

#### Adirazle Iturria:

Udala, hiri garraioa kudeatzen duen konpainia

#### Iturri Balorea Ref:

GJH:

11 Hiri eta komunitate jasangarriak

3. eta 4. Irudiak: Adierazleak oinarritzat hartuta planaren emaitzen jarraipena egiteko e-mugi tresnaren adierazleak atala.

- Udalerriko Berotegi Efectuko Gasen inbentarioa kalkulatzeko:** BEG inbentarioa tresnaren bidez hurrengo sektoreei lotutako berote-efektuko gasen emisioen urteko kalkulua egitea eta era horretan Oiartzungo klima- eta energia-planaren helmugak (helburu kuantitatiboak) lortzeko bidean ote gauden aztertu ahal izango du Udalak: mugikortasuna, bizitegiak, zerbitzuak (Udala barne sartuta), hondakinak eta lehen sektorea. **Kalkulua urtero eginez gero, Oiartzungo ekintza-planaren ezarpenari esker lortu nahi diren arintzearen helmugak lortzeko bidean ote gauden neurtu ahal izango du udalak** eta horren arabera dagokion erabakiak hartu.
- Udalaren karbono-aztarna kalkulatzeko:** Karbono-aztarna tresnaren bidez Udalaren jardunari lotutako hurrengo sektoreen BEG isurketen urteko kalkulua egitea: eraikinen eta argiteria publikoaren kontsumo energetikoa eta udal ibilgailuen erregai kontsumoa aintzat hartzen ditu, besteak beste. **Kasu honetan, udal jardunari dagozkion ekintza-planeko ekintzak aurrera eramanez ezarritako helburu kuantitatiboak lortzen ari ote garen neurtu ahal izango da** eta horietatik abiatuz erabaki egokiak hartu.

5. **Emaitzak komunikatzea eta kontuak ematea:** Klima eta energiari buruzko tokiko planaren ebaluazio- eta jarraipen-prozesuaren emaitzak ezagutzera ematea eta konpartitzea, urteko (edo bi urteko) txosten baten bidez. Bertan, planaren aurrerapenen laburpena eta baita jarraipen-adierazle nagusien emaitzak ere jasoko dira. Gainera, 4/2019 Legeak (14. artikulua) eta 1/2024 Legeak (54. artikulua) planaren ezarpenarekin zerikusia duten aurrerapenak komunikatzeko betebeharra ezartzen du.
  
6. **Alkateen itunari planaren aurrerapen eta emaitzez informatzea** (Oiartzungo Udalak Itunarekin bat egingo balu aplikagarri litzateke): Alkateen Klima eta Energia Ituna nazioarteko ekimen bat da, eta bertan biltzen direnek, beren borondatez klimaren eta energiaren nazioarteko helburuak ezartzeko konpromisoa hartzen dute. Klima eta Energiaren aldeko Alkateen Itunari atxikita<sup>2</sup> dauden udalerriek Itunaren jarraipenerako online formularioa bete beharko dute, BEG inbentarioaren datuak eta bi urtetik behingo neurrien gauzatze maila adieraziz.

#### **2.4. EKINTZEN KARAKTERIZAZIOA: EKINTZEN DESKRIBAPEN FITXAK**

Hurrengo orrietan ekintza-planak dituen 73 ekintzen deskribapen fitxak jaso dira.

Ekintza bakoitzari lotutako honako atalak jaso dira:

- Ekintzaren kodea eta izenburua
- Erlazionatutako helburu estrategikoa
- Erlazionatutako jarduera-programa
- Deskribapena (ekintza-aurrera eramateko jardueren multzoa)
- Ekintzaren arduradun nagusia eta halakorik bada, bestelako arduradunak
- Ekintzaren hasiera-urtea eta amaiera-urtea
- Ekintza jarraitua den ala ez zehaztea
- Lehentasun-maila
- Aurrekontua
- Erlazionatutako Garapen Jasangarriko Helburua
- Erlazionatutako beste udal planak, halakorik bada
- Oharrak, halakorik bada
- Klima-aldaketa arintzeari edo egokitzeari lotutako zein sektoreri eragiten dion
- Aurrezpen energetikoa eta saihestutako BEG isuriak.

---

<sup>2</sup> Informazio gehiago hemen: <https://eu-mayors.ec.europa.eu/es/home?etrans=es>

<b>Kodea</b>	<b>1.1.1</b>	<b>Ekintza</b>	<b>Udalaren titulartasuneko eraikinen, ibilgailuen eta argiteria publikoko instalazioen inbentarioaren nondik norakoak zehaztea eta inbentarioa indarrean dagoen araudiak ezartzen duen moduan osatzea.</b>
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN</b>		
<b>Programa</b>	<b>UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA</b>		
<b>Deskribapena</b>	<p>EAEko energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legeak 11. artikuluan zehazten du administrazio publikoek beren jarduera-eremuaren barruan dituzten eraikinen, ibilgailu-atalen eta argiteria publikoko instalazioen inbentarioa egin behar dituztela, legea indarrean sartzen den egunetik gehienez ere sei hilabeteko epean.</p> <p>Elorsoro kiroldegia, Madalensoro pilotalekua, igerileku irekiak, udaltzainen ibilgailuak eta brigadako ibilgailu berria ez daude zerrendan eguneratuak eta egin beharreko lan bat da. Udal jabetzako eraikinetan zerbitzu publiko bat eskaintzen bada (fakturak nork ordaintzen dituen begiratu gabe), udal inbentarioan eraikin horren ezaugarriak barneratzeaz gain, kontsumoak ere barneratu behar dira. Hona hemen zenbait irizpide baliagarri:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontsumo energetiko hori erabilera pribatuko eraikin batean pertsona fisiko batek (etxebizitzak) edo pertsona juridiko pribatu batek (sortu berri diren enpresei edo sortzen ari diren enpresei zuzendutako “enpresen haztegi” bat) eginez gero, udalak ez du kontsumo energetiko hori kontuan izango, ez baita udalak herritarrei zuzendutako zerbitzu batekin lotura duen kontsumo bat.</li> <li>- Kontsumo energetiko hori herritarrei zerbitzu bat emateko bada (polikiroldegia, herri-eskola, etab.), nahiz eta adibidez, enpresa batek zerbitzu hori eman, udalarekin sinatutako kontratu baten arabera, orduan bai, udalak kontsumo hori kontuan izan behar du, propio moduan.</li> <li>- Kontsumo energetiko hori egiten duena beste euskal administrazio publiko bat bada (Jasangarritasun Energetikoaren Legea bete behar duena), orduan beste administrazio publiko hori izango da kontsumoa hori propio moduan kontuan izan behar duena (adibidez, eskualdeko garapen agentzia udal jabetzako eraikin batean kokatuta dagoenean, Eusko Jaurlaritza institutu publikoen kasua, etab.).</li> </ul>		
<b>Arduradun nagusia</b>	<b>ENERGIA TEKNIKARIA ETA ELEKTRIKARIA</b>		



<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2024-2025	<b>Amaiera urtea</b>	2025	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Altua		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>		0 €	
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>	4/2019 legearen 11. atalaren betetzea Inbentarioak egiteak bere baitan ez du aurrezpen energetikorik edo isuri murrizketarik ekartzen. Ondorioz, ez da zenbatetsi.					
<b>Sektorea</b>	Udala	<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>			-	
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea	<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>			-	

<b>Kodea</b>	1.1.2	<b>Ekintza</b>	<b>Egiteke dauden 11 eraikinen kalifikazio energetikoa osatzea.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN</b>					
<b>Programa</b>	<b>UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Deskribapena</b>	<p>EAEko energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legeak 19. artikuluan zehazten du Udal-eraikinen energia-kontsumoak ezagutzeko, kontrolatzeko eta murrizteko, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen titulartasuneko eraikin guztiek Euskadiko Efizientzia Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan behar bezala inskribatutako ziurtapen energetikoa eduki behar dutela, lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean (salbuespen batzuk izan ezik).</p> <p>“Udal energia-diagnostikoa eta ekintza-plana” txostenean udal eraikinen gaineko diagnostikoa eta estrategia definitu dira eta honen idazketa garaian (2023 urtea) 64 eraikinetatik 24k bakarrik eduki beharko lukete kalifikazio energetikoa, beste 40ak salbuetsita baitaude. Hala ere, 24 horietako 13k bakarrik dute kalifikazio energetikoa osatuta.</p>					
<b>Arduradun nagusia</b>	ENERGIA TEKNIKARIA ETA APAREJADOREA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2024-2025	<b>Amaiera urtea</b>	2025	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Altua		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>	10.000 €		
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>	<p>4/2019 legearen 19. atalaren betetzea</p> <p>Energia-ziurtagiriak egiteak bere baitan ez du aurrezpen energetikorik edo isuri murrizketarik ekartzen.</p>					
<b>Sektorea</b>	Udala		<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>	-		
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea		<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>	-		

<b>Kodea</b>	1.1.3	<b>Ekintza</b>	<b>Udal eraikin handienetan ziurtagiri energetikoak berrikustea eta dokumentu horiei dagozkion moldaketak egitea.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN					
<b>Programa</b>	UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA					
<b>Deskribapena</b>	<p>EAEko energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legeak 19. artikuluan zehazten du Udal-eraikinen energia-kontsumoak ezagutzeko, kontrolatzeko eta murrizteko, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen titulartasuneko eraikin guztiek Euskadiko Efizientzia Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan behar bezala inskribatutako ziurtapen energetikoa eduki behar dutela, lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean (salbuespen batzuk izan ezik).</p> <p>Oiartzungo udal eraikin handien artean herri-eskola, Elorsoro kiroldegia eta udaletxea sartuko lirateke.</p>					
<b>Arduradun nagusia</b>	ENERGIA TEKNIKARIA ETA APAREJADOREA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2024-2025	<b>Amaiera urtea</b>	2025	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Altua		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>		10.000 €	
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>	<p>4/2019 legearen 19. atalaren betetzea</p> <p>Energia-ziurtagiriak egiteak bere baitan ez du aurrezpen energetikorik edo isuri murrizketarik ekartzen.</p>					
<b>Sektorea</b>	Udala		<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>		-	

Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea	Saihestutako isurketak (t CO <sub>2</sub> )	-
----------------------------------	----------	---	---

Kodea	1.1.4	Ekintza	<b>Udal eraikin guztien kalifikazio energetikoak osatutakoan, B azpitik daudenetan gutxienez kalifikazio hori lortzeko plangintza bat prestatzea, 2030 urtea baino lehen helburu hori lortzeko.</b>
Helburu Estrategikoa	OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN		
Programa	UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA		
Deskribapena	<p>EAEko energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legeak 19. artikuluan zehazten du, B mailako kalifikazio energetikoa baino baxuagoa duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzaren eraikinen % 40k kalifikazio hori hobetu beharko dutela B mailaraino, gutxienez, 2030. urtea baino lehen, salbu eta 3.2 artikulua araberaz justifikatutako arrazoi bat dagoen.</p> <p>Kalifikazio energetikoa hobetzeko lehentasuna emango zaio betiere energia-kontsumoaren murrizketari eta ez isurketen murrizketari, energia-eskaeraren adierazle partzialetan maila bat gutxienez hobetuz.</p> <p>Oiartzungo Udalaren eraikin gehienek ezaugarri arkitektonikoak direla eta (ondare-erakinak, hainbat babes-mota, etab.) horien zati bat legearen atal honetan ezarritako helburua lortzeko salbuetsita egon daiteke. Hala ere, birgaitu egin beharko dira, alderdi energetikoa kontuan hartuz eta ahalik eta kalifikazio onena lortuz eraikin bakoitzak izan ditzakeen baldintzen barruan.</p> <p>“Udal energia-diagnostikoa eta ekintza-plana” txostenean udal eraikinen gaineko diagnostikoa eta estrategia definitu dira eta honen idazketa garaian (2023 urtea) 64 eraikinetatik 24k bakarrik eduki beharko lukete kalifikazio energetikoa, beste 42ak salbuetsita baitaude. Hala ere, 24 horietako 13k bakarrik dute kalifikazio energetikoa osatuta.</p> <p>2018an 13 eraikinetatik bakar batek zuen A edo B mailako kalifikazio energetikoa; Hau da, eraikin publikoen % 8ak bakarrik. <b>2030 urterako 24 eraikinetatik 10ek (% 40) A edo B kalifikazioa eduki beharko dute.</b></p> <p><b>Eraikinek Oiartzungo Udalaren energia primarioaren kontsumo osoaren % 64 suposatzen dute. Eraikin guzti horien artean 15 dira kontsumoaren % 85aren erantzule. Horregatik, hobekuntzak eraikin horietarako proposatu dira “Udal energia-diagnostikoa eta ekintza-plana” txostenean. Hauen gainean plangintza bat zehaztuko da, 2030erako estrategia definituz.</b></p>		
Arduradun nagusia	ENERGIA TEKNIKARIA ETA APAREJADOREA		

<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2024-2025	<b>Amaiera urtea</b>	2025	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Altua		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>	0 € (udal baliabideekin landuko da plangintza hori)		
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>	<p>4/2019 legearen 19. atalaren betetzea</p> <p>Zeharkako eragina energia aurrezpen eta saihestutako isurketan (plangintza mailako ekintza delako).</p> <p>Udal-eraikinen (kontsumo altueneko 15 eraikinen) kalifikazio energetikoak hobetzeko neurriak eramateak dakarren aurrezpen energetikoa kalkulatu da “Udal energia-diagnostikoa eta ekintza-plana” txostenean. Aztertu diren 15 eraikinen gainean % 56ko aurrezpena estimatzen da (eraikin guztien kontsumoaren % 85aren gainean). Udalak duen energia primarioaren kontsumo osotik (4.294.237,20 kWh azken energia kontsumoa) % 49 aurreztuko litzateke.</p>					
<b>Sektorea</b>	Udala	<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>			2.108.903 kWh energiaren azken kontsumoa (2018 urtearekiko).	
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea	<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>			394,36 t CO <sub>2</sub>	

<b>Kodea</b>	1.1.5	<b>Ekintza</b>	<b>Udal eraikin guztietan kalifikazio energetikoaren etiketa ikusgai jartzea.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN</b>					
<b>Programa</b>	<b>UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Deskribapena</b>	EAEko energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legeak 19. artikuluan zehazten du Udal-eraikinen energia-kontsumoak ezagutzeko, kontrolatzeko eta murrizteko, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen titulartasuneko eraikin guztiek Euskadiko Efizientzia Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan behar bezala inskribatutako ziurtapen energetikoa eduki behar dutela, lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean (salbuespen batzuk izan ezik). Bestalde, 28. atalean zehazten da, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek eraikinen efizientzia energetikoari buruzko etiketak jarri behar dituztela ikusgai nahitaez, erraz ikusteko lekuren batean, efizientzia energetikoari buruzko ziurtapena Euskadiko Efizientzia Energetikoko Ziurtagirien Erregistroan inskribatu bezain laster.					
<b>Arduradun nagusia</b>	ENERGIA TEKNIKARIA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2026-2027	<b>Amaiera urtea</b>	2027	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Altua		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>		0 €	
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>	4/2019 legearen 22. atalaren betetzea Energia-ziurtagiriak ikusgai jartzeak bere baitan ez du aurrezpen energetikorik edo isuri murrizketarik ekartzen.					
<b>Sektorea</b>	Udala		<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>		-	
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea		<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>		-	

<b>Kodea</b>	1.1.6	<b>Ekintza</b>	<b>Eraikin guztietan energia auditoretzak egiteko plangintza bat definitzea eta beharrezko direnak gauzatzea, kontsumo altuena duten eraikinak lehenetsiz.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN</b>					
<b>Programa</b>	<b>UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Deskribapena</b>	<p>EAEko energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legeak 13. artikuluan zehazten du, lege hau indarrean sartu eta gehienez ere bi urteko epean dagokien auditoretza energetikoa eginda eduki behar dutela 70 kW baino gehiagoko potentzia termikoa duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen eraikinek. Bestalde, Kanpoko argiteria publikoari aparteko auditoretza energetikoa egingo zaio; nolana ere, kanpoko argiteria publikoa osatzen duten osagaiak berritzea eta gutxitzea izan behar du lehentasun, pertsonen edo instalazioen segurtasunagatik posible ez den kasuetan izan ezik, eta bide publiko bakoitzerako argiztapen maila egokien alde aurreko azterketa ere egin beharko da.</p> <p>Udal-eraikinen eta argiteria publikoen auditoretzak eguneratuta mantentzearen beharra ere jasotzen da. Auditoretza energetikoak 4 urtean behin berritzea eskatzen da.</p> <p>Energia aurrezpena bilatzen duen edozein ekintza planteatu aurretik ezinbestekoa da eraikinaren eta bere instalakuntzen kontsumo energetikoaren inguruko informazio objektiboa izateko, aurretik bere azterketa oso bat izatea. Modu honetara ekintzaren inpaktua aztertzeko eta hau beste batzuk baino lehenago egiteko komenentzia jakingo da.</p>					
<b>Arduradun nagusia</b>	ENERGIA TEKNIKARIA ETA APAREJADOREA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2024-2025	<b>Amaiera urtea</b>	2025	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Altua		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>		40.000 €	
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					

<b>Erlazionatutako plana:</b>	-		
<b>Oharrak</b>	<p>4/2019 legearen 13. atalaren betetzea.</p> <p>Energiaren Euskal Erakundeak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntzak argitaratu ohi ditu energia auditoretzak gauzatzea errazteko.</p> <p>Auditoretza energetikoak egiteak bere baitan ez du aurrezpen energetikorik edo isuri murrizketarik lortzen.</p>		
<b>Sektorea</b>	Udala	<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>	-
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea	<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>	-



<b>Kodea</b>	1.1.7	<b>Ekintza</b>	<b>Auditoretza beharrik ez duten baina kontsumo altukoak diren lokaletako energia kontsumoen kontrola aurrera eraman.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN</b>					
<b>Programa</b>	<b>UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Deskribapena</b>	<p>Auditoretza energetikoa egitera behartuta ez badaude ere, 70 kw-ko potentzia termikora iristen ez diren eraikinetan ere, azterketa zehatzak egitea gomendatzen da kontsumo altuak (berokuntza sistemetan batez ere) erregistratzen badituzte. Hartara, behar diren zuzenketak programatu ahal izango dira eta energia-aurrezpenak erdietsi. Lehendabizi ezaugarri hauek dituzten lokalen zerrenda osatuko du Udalak.</p> <p>Energia aurrezpena bilatzen duen edozein ekintza planteatu aurretik ezinbestekoa da eraikinaren eta bere instalakuntzen kontsumo energetikoaren inguruko informazio objektiboa izateko, egunez eguneko kontsumoen kontrola eramatea edo/eta aurretik bere azterketa oso bat izatea. Modu honetara ekintzaren inpaktua aztertzeko eta hau beste batzuk baino lehenago egiteko komenentzia jakingo da.</p>					
<b>Arduradun nagusia</b>	ENERGIA TEKNIKARIA ETA APAREJADOREA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2024-2025	<b>Amaiera urtea</b>	2025	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Altua		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>	-		
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>	<p>4/2019 legearen 13. atalaren betetzea.</p> <p>Energiaren Euskal Erakundeak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntzak argitaratu ohi ditu energia azterketak gauzatzea errazteko.</p>					

	Azterketa energetiko hauek egiteak bere baitan ez du aurrezpen energetikorik edo isuri murrizketarik lortzen.		
<b>Sektorea</b>	Udala	<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>	-
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea	<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>	-

<b>Kodea</b>	1.1.8	<b>Ekintza</b>	<b>Elorsoro kiroldogiko energia kontsumo elektriko eta termikoaren kontrola sistematizatzea.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN					
<b>Programa</b>	UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA					
<b>Deskribapena</b>	<p>Elorsoro kiroldogiaren azken energia kontsumoa 1.317.510 kWh da urtean, hau da, Oiartzungo Udalaren energia kontsumoaren % 31. Momentu honetan eraikin honen kalifikazio energetikoa C da.</p> <p>Garrantzitsua da hain kontsumo altua duen eraikinak eragiten dituen elektrizitate eta gasaren kontsumoen kontrola gauzatzea, kontsumoen gainean eragin nahi bada. Ekintza honekin kontsumoen kontrolerako sistema abian jarri nahi da. Kontsumo altuenen gaineko kontrolari esker zuzeneko neurri-hartzeak eta hobekuntzak eratorriko dira.</p>					
<b>Arduradun nagusia</b>	KIROL TEKNIKARIA, ENERGIA TEKNIKARIA ETA APAREJADOREA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2024-2025	<b>Amaiera urtea</b>	2025	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Altua		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>		14.817 €	
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>	<p>Zuzeneko eragina energia aurrezpen eta saihestutako isurketan.</p> <p>Udal-eraikin hauen gaineko kontsumoen kontrolarekin eraikin hauen gainean energia kontsumoaren aurrezpena etorriko da. Zaila da estimatzea zenbateko aurrezpena lortu daitekeen.</p>					
<b>Sektorea</b>	Udala		<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>		-	
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea		<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>		-	

<b>Kodea</b>	1.1.9	<b>Ekintza</b>	<b>Elorsoro kiroldegiko kanpoko piszinek eragiten duten gehiegizko energia-kontsumoa murrizteko neurriak martxan jartzea.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN</b>					
<b>Programa</b>	<b>UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Deskribapena</b>	<p>Elorsoro kiroldegiaren azken energia kontsumoa 1.317.510 kWh da urtean, hau da, Oiartzungo Udalaren energia kontsumoaren % 31. Momentu honetan eraikin honen kalifikazio energetikoa C da.</p> <p>“Udal energia-diagnostikoa eta ekintza-plana” txostenean proposatzen diren hobekuntzez gain (argiteria LEDera aldatzea, galdara aldaketa eta autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa jartzea), Udala jakitun da kanpoko piszinek eragiten duten gehiegizko energia-kontsumoaz eta hau murrizteko neurriak hartu beharko dira; hala nola, beroak ihes egin ez dezan, kanpoko piszinak beti estalita mantentzea, eta ihes egiten duen beroa berrerabili ote daitekeen aztertzea.</p>					
<b>Arduradun nagusia</b>	KIROL TEKNIKARIA, ENERGIA TEKNIKARIA ETA APAREJADOREA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2024-2025	<b>Amaiera urtea</b>	2025	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Altua		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>		150.000 €	
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>	Kanpoko piszina klimatizatuaren gainean neurriak hartuz lortuko litzatekeen kontsumoaren aurrezpena kalkulatzeko, honen kontsumoak ezagutu beharko lirateke.					
<b>Sektorea</b>	Udala		<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>		-	
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea		<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>		-	

<b>Kodea</b>	1.1.10	<b>Ekintza</b>	<b>Kale-argiteria publikoa led teknologiarara aldatzen jarraitu.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN</b>					
<b>Programa</b>	<b>UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Deskribapena</b>	<p>“Udal energia-diagnostikoa eta ekintza-plana” txostenean, argiteria publikoaren 2018ko energia kontsumoaren datuak jaso dira. Honen arabera Oiartzungo argiteria publikoak energia kontsumo totalaren % 34 ordezkatzen du eta energia elektrikoaren kontsumo totalaren % 46.</p> <p>Argiteria publikoaren berrikuntzak elektrizitate kontsumoan beherakada nabarmena suposatuko luke. <b>Erreferentzia urtean (2018) azken energia kontsumoa 1.143.146 kWh-koa izan zen</b> (energia primarioari dagokionean 2.706.969,8 kWh, 2018an konbertsio faktorea elektrizitateari dagokionean 2,368-koa da).</p> <p>Argiteria publikoaren energia-auditoretza eguneratu berri da 2024ean. Bertan jasotakoaren arabera:</p> <p>2013. urtean egin zen kanpoko argiztapenaren lehen auditoretza eta geroztik, kanpoko argiteria berritzeko jarduerak egin dira, eta zeuden luminarien ordez eraginkorrakoak jarri dira led teknologiarekin. <b>2013an 1.396.881 kWh-ko kontsumoa erregistratu zen eta 2023an 915.789 kWh-ko kontsumoa.</b> Beraz, azken 10 urteetan eginiko jarduera horien bidez, <b>energia-kontsumoa %34,5 murriztu da</b>, nahiz eta argi-puntuen eta biztanleen kopurua, hurrenez hurren, %14,7 eta %3,4 igo den. Era berean, koadro elektrikoaren kopurua %10 murriztu da, luminariak led-era aldatuz instalatutako potentziaren jaitsieraren aurrean koadroak bateratzean.</p> <p>Luminaria bakoitzeko batez besteko potentzia instalatua 133 W-koa zen 2013an, eta LED teknologiatik aldatzean potentzia instalatua 74 W-ra murriztu dute luminaria bakoitzeko, % 42,9ko murrizketa da hau.</p> <p><b>Auditoretza berri honetan planteatutako jardueren bidez, lortutako energia elektrikoaren aurrezpena 458.255 kWh-koa litzateke (114,6 Tep), 2023. urtean kanpoko argiztapenean kontsumitu zen energia guztiaren % 50.</b></p>					
<b>Arduradun nagusia</b>	Obra eta Zerbitzuetako arduraduna					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2025-2027	<b>Amaiera urtea</b>	2027	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Altua			<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>	742.760 €	

			(urtean 108.978 €-ko aurrezki ekonomikoa sortzen du).
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA		
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-		
<b>Oharrak</b>	Auditoretzan proposaturako hobekuntzekin 457.534 kWh-ko kontsumoa lortu ahal izango litzatekeenez eta erreferentzia urtean (2018) erregistratu ziren 1.143.146 kWh-ko kontsumoa aintzat hartuta, 2018tik aurrezpena 685.612 kWh-koa litzateke, % 60ko aurrezpena.		
<b>Sektorea</b>	Udala	<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>	685.612 kWh energiaren azken kontsumoa (2018 urtearekiko)
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea	<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>	171,45 t CO <sub>2</sub> (2018 urtearekiko)

<b>Kodea</b>	1.1.11	<b>Ekintza</b>	<b>Etorkizunean udalak gauzatu ditzakeen birgaitze integraleko inbertsioetan edo udal eraikin berrien kasuan, kontsumo ia nuluko eraikinak izatea bermatzea.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN</b>					
<b>Programa</b>	<b>UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Deskribapena</b>	<p>EAEko energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legearen 20. artikulua araberak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen titulartasuneko eraikin berriek energia-kontsumo ia nulukoak izan behar dute. Hala izan beharko dute aurretik dauden eraikinek ere, eraberritze integralak egiten badizkiete, obra horiek lege hau onartu eta bi urtetik aurrera hasten badira, edo aplikagarri dakikeen araudiak hala esaten duenetik aurrera.</p> <p>Kasu honetan ere, birgaitze energetikoaren bidez energia-kontsumo ia nuluen helburua lortzeko ezintasuna teknikoki justifikatzen duten eraikinak (balio arkitektoniko edo historikoagatik babestutako eraikin eta monumentuak, edo tailerretara, prozesu industrialetara eta bizitegiak ez diren nekazaritzara bideratutako industria- eta nekazaritza-eraikinak) legearen artikulua hau betetzetik salbuetsita egongo dira.</p>					
<b>Arduradun nagusia</b>	ENERGIA TEKNIKARIA ETA UDAL ARKITEKTOA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2028-2030	<b>Amaiera urtea</b>	2030	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Ertaina		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>		Eraikin-motaren eta bere ezaugarrien arabera izango da aurrekontua.	
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>	4/2019 legearen 20. atalaren betetzea Zuzeneko eragina energia aurrezpen eta saihestutako isurketan.					

	Udal-eraikin motaren araberakoa litzateke kontsumo aurrezpena. Ezin da momentuz kalkulerik egin.		
<b>Sektorea</b>	Udala	<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>	-
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea	<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>	-



<b>Kodea</b>	1.1.12	<b>Ekintza</b>	<b>Edozein ekipo, tresna, produktu edo sistema eskuratzeko beharra dagoenean, energia-eraginkortasun altuenekoa izatea bermatzea.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN					
<b>Programa</b>	UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA					
<b>Deskribapena</b>	<p>EAEko energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legearen 18. artikulua arabera Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzak bere instalazioak, ekipoak, flotak eta ibilgailuak berritzeko garaian kontuan izan behar ditu energia-aurrezpeneko eta efizientzia energetikoko irizpideak, produktu, ondasun eta zerbitzuaren kostu eta bizitza baliagarrikoak, bai eta berotegi-efektuko isurketak gutxitzen lagunduko duten ordezkio energiak erabiltzea ere.</p> <p>Bestalde, energia-errendimendu handiko produktuak, zerbitzuak eta eraikinak erosi behar dituzte, irizpide hauen arabera, besteak beste:</p> <p>a) Efizientzia mailarik handienekoak izatea erosten diren ondorengo ekipoek: klimatizazio-ekipoak, etxeko ur beroko ekipoak, ekipo ofimatikoak eta argiteriako ekipoak.</p> <p>b) Errepide-garraioko ibilgailuak eta pneumatikoak erosterakoan, kontuan hartu behar da zer bizi-ziklo duten eta zer energia- eta ingurumen-inpaktu eragingo dituzten.</p> <p>c) Zerbitzu-kontratuak esleitzeko lizitazioetan zerbitzuaren hornitzaileek erabil ditzatela, kontratu horien xedeetarako, aurreko ataletan adierazitako baldintzak betetzen dituzten produktuak.</p>					
<b>Arduradun nagusia</b>	ENERGIA TEKNIKARIA ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2028-2030	<b>Amaiera urtea</b>	2030	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Altua			<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>	0 €	
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					

<b>Oharrak</b>	4/2019 legearen 18. atalaren betetzea. Zeharkako eragina energia aurrezpenean eta saihestutako isurketan.		
<b>Sektorea</b>	Udala	<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>	-
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea	<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>	-

<b>Kodea</b>	1.1.13	<b>Ekintza</b>	<b>Eraginkortasun energetikoari eta eraikinetan energiaren erabilera arduratsuari buruzko prestakuntza eskaintzea udal-langileei nahiz udal-hautetsiei.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN</b>					
<b>Programa</b>	<b>UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Deskribapena</b>	<p>Udal langile zein ordezkari politikoei zuzenduriko formazio-saio hauek beharrezkoak izango dira ekintza-planean jasotzen diren neurriak gauzatu daitezen. Energia eraginkortasuna eta klima aldaketaren gaian ez dira ezagunak eta udal eskumenekoak izango diren ekintzak aurrera eramateko ardura dutenek gaian jantzita egotea nahitaezkoa izango da.</p> <p>Saio hauek urtero antolatzea komeni da, udal arduradun, teknikari eta ordezkariak etengabe gaian jantzita egon daitezen.</p> <p>Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eusko Jaurlaritzaren programara atxikitzen diren udalek erosketetan, hornikuntzetan eta zerbitzuen kontratazioetan energia eraginkortasuneko irizpideak barneratzeari buruzko prestakuntza jasotzen dute eta pleguetan ingurumen aldagaia txertatzeko laguntza ere bai. Bestalde, GFAk eta Usurbilgo Lanbide Eskolak, lankidetzan udalei zuzendutako ikastaroak eskaintzen ditu urtero.</p>					
<b>Arduradun nagusia</b>	ENERGIA TEKNIKARIA ETA GIZA-BALIABIDEAK					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2024-2025	<b>Amaiera urtea</b>	2025	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Bai
<b>Lehentasuna</b>	Altua		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>	5.000 € gehienez		
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>	<p>Zeharkako eragina energia aurrezpen eta saihestutako isurketan.</p> <p>Udal-eraikinen berokuntza sisteman egiten den kontsumoaren aurrezpena % 2 batean estimatu daiteke ohitura onak ezarri gero (udal langile guztiak sentsibilizatzea lortuko balitz, portzentaje hori moldatu beharko litzateke eta</p>					

	beraz, aurrezpen handiagoa lortuko litzateke ohitura-aldaketei esker). Udal eraikinen gas-naturalaren azken energia kontsumo 1.563.530 kWh izanik, honen gainean ezarriko da aurrezpena.		
<b>Sektorea</b>	Udala	<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>	31.270,6 kWh
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea	<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>	6,32 t CO <sub>2</sub>

<b>Kodea</b>	1.2.1	<b>Ekintza</b>	<b>Oiartzungo Udalaren energia beharrak energia berriztagarrietatik asetzeko dauden aukerak aztertzea.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN					
<b>Programa</b>	UDAL EKIPAMENDUETAN ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EZARPENA AREAGOTZEA					
<b>Deskribapena</b>	<p>EAEko energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legearen 17. artikulua araberak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzak 2030erako lortu beharra dauka bere eraikin guztietan energia berriztagarriez baliatzeko instalazioak edukitzea, administrazio horren kontsumoaren % 32 zuzkitzeko adinakoa, ustiapen termikoko sistemak nahiz elektrizitatea sortzekoak barne direla.</p> <p>Udalaren energia beharrak iturri ezberdinetako energia berriztagarrietatik lortu ahal dira: eguzki energia, hidroelektrikoa (uraren indarra) edo/eta eolikoa (haizearen indarra). Dauden aukera ezberdinetatik ekoitzi daitekeen energiaren gaineko azterketak gertuko etorkizunean hartu beharreko bidea zehazten lagundu ahal dio Udalari.</p> <p>Energia hidroelektrikoaren aukerarako hainbat gai aztertu beharko dira aurrez: uraren kontzesioa, araztegia, kanalaren egoera.</p>					
<b>Arduradun nagusia</b>	ENERGIA TEKNIKARIA, ELEKTRIKARIA ETA UR-ZERBITZUETAKO ARDURADUNA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2024-2025	<b>Amaiera urtea</b>	2025	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Altua		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>		20.000 € artean.	
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>	<p>4/2019 legearen 17. atalaren betetzea.</p> <p>Azterketak emango du lortuko litzatekeen aurrezpenaren estimazioa.</p>					
<b>Sektorea</b>	Udala		<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>		-	

Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea	Saihestutako isurketak (t CO <sub>2</sub> )	-
----------------------------------	----------	---	---

<b>Kodea</b>	1.2.2	<b>Ekintza</b>	<b>Elorsoro kiroldagian autokontsumorako instalazio fotovoltaikoa jartzea.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN</b>					
<b>Programa</b>	<b>UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Deskribapena</b>	<p>Elorsoro kiroldegiak energia primarioaren 2.463.744,6 kWh kontsumitzen ditu urtean, hau da, Oiartzungo Udalaren energia kontsumoaren % 31. Momentu honetan eraikin honen kalifikazio energetikoa C da.</p> <p>“Udal energia-diagnostikoa eta ekintza-plana” txostenean proposatzen diren hobekuntzetako bat bertako energia kontsumorako eguzki-plaken instalazioa jartzean datza. Eraikinaren auditoretza berrian proposatzen den instalazioaren egokitasuna aztertu beharko da.</p>					
<b>Arduradun nagusia</b>	KIROL TEKNIKARIA, ENERGIA TEKNIKARIA ETA APAREJADOREA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2024-2025	<b>Amaiera urtea</b>	2025	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Altua		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>	150.000 €		
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>	Momentuz “Udal energia-diagnostikoa eta ekintza-plana” txostenean proposatzen diren hobekuntza guztiek (eguzki-plaken instalazioa barne) eragingo luketen aurrezpena aztertu da, 1.066.924,90 kWh aurreztuko lirakeelarik, kiroldegiaren kontsumoaren gainean % 43ko aurrezpena eta Udalaren kontsumo primarioaren (7.938.975,8 kWh) % 13ko aurrezpena.					
<b>Sektorea</b>	Udala		<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>	-		
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea		<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>	-		

<b>Kodea</b>	1.2.3	<b>Ekintza</b>	<b>Elorsoro kiroldegian autokontsumorako eguzki-instalazio termiko berria jartzea.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN</b>					
<b>Programa</b>	<b>UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Deskribapena</b>	<p>Elorsoro kiroldegiak energia primarioaren 2.463.744,6 kWh kontsumitzen ditu urtean, hau da, Oiartzungo Udalaren energia kontsumoaren % 31. Momentu honetan eraikin honen kalifikazio energetikoa C da.</p> <p>Kiroldegia ur-beroz auto-hornitzeko eguzki-plaka termikoak jada zaharkiturik geratu dira eta hauek berriengatik ordezkatzeko beharrezkoa da, eskakizun berriei egokitzeko. Hala ere, instalazio zaharrari loturiko hoditeria oraindik erabilgarria izan daiteke.</p> <p>Eraikinaren auditoretza berriari proposatzen den instalazioaren egokitasuna aztertu beharko da hurrengo urratsak eman aurretik.</p>					
<b>Arduradun nagusia</b>	KIROL TEKNIKARIA, ENERGIA TEKNIKARIA ETA APAREJADOREA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2024-2025	<b>Amaiera urtea</b>	2025	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Altua		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>		150.000 €	
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>						
<b>Sektorea</b>	Udala		<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>		-	
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea		<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>		-	



<b>Kodea</b>	1.2.4	<b>Ekintza</b>	<b>Basoen ustiaketa jasangarriaren bidez udal eraikinetan edo herriko beste sektoreetan erabili daitezkeen baliabide energetikoen bideragarritasuna ikertu.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN					
<b>Programa</b>	UDAL EKIPAMENDUETAN ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EZARPENA AREAGOTZEA					
<b>Deskribapena</b>	<p>EAEko energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legearen 17. artikulua araberak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzak 2030erako lortu beharra dauka bere eraikin guztietan energia berriztagarriez baliatzeko instalazioak edukitzea, administrazio horren kontsumoaren % 32 zuzkitzeko adinakoak, ustiapen termikoko sistemak nahiz elektrizitatea sortzekoak barne direla.</p> <p>Biomasaren kasuan, berriztagarritzat jotzen da basoen kudeaketa jasangarriko ziurtapen-sistema egiaztatu bat daukaten baso-ustiategietatik etortzen den energia.</p> <p>Beraz, interesgarria izango da baliabide energetiko honek izan dezakeen bideragarritasuna aztertzea.</p>					
<b>Arduradun nagusia</b>	INGURUMEN TEKNIKARIA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2028-2030	<b>Amaiera urtea</b>	2030	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Ertaina		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>		5.000 € - 10.000 € artean.	
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>	<p>4/2019 legearen 17. atalaren betetzea</p> <p>Azterketa batek bere baitan ez du aurrezpen energetikorik edo isuri murrizketarik lortzen. Azterketak emango digu lortuko litzatekeen aurrezpenaren estimazioa.</p>					
<b>Sektorea</b>	Udala		<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>			

<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea	<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>	
---	----------	--	--

<b>Kodea</b>	2.1.1	<b>Ekintza</b>	<b>Etxebizitzak irizpide bioklimatikoaren eta energia-jasangarritasun irizpideen arabera eraikitze neurriak aztertu eta ezarri.</b>
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA</b>		
<b>Programa</b>	<b>ETXEBIZITZEN SEKTOREAN ENERGIAREN ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA KALTEBERATASUN ENERGETIKOAREN EGOEREI AURRE EGITEA</b>		
<b>Deskribapena</b>	<p>EAEko energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 legearen 41. artikulua arabera etxebizitzarako erabiltzen diren eraikinetan, titulartasun publikoak zein pribatuak, besteak beste honako neurriak bete behar dituzte:</p> <p>Aurretik dauden etxebizitzetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurretik dauden bizitegi-eraikinetan, gutxienezko etxebizitza kopuru bat daukatenetan, eraberritze-lan handi bat egiteko asmoa dagoenean, aurretiaz auditoretza energetikoa egin beharko da, araudi bidez erregulatzen den moduan, zehaztu ahal izateko hartu beharreko neurri gehigarri batzuk aurrezpen eta efizientzia energetikoa hobetze aldera, bai eta energia berriztagarrien instalazioak txertatzeko aukerak ere.</li> <li>- Eraikinaren efizientzia energetikoko ziurtagiria eduki beharko dute 2022ko abenduaren 31 baino lehenago. Berrituko edo zaharberrituko diren bizitegi-eraikietan, betiere eraikin horiek ziurtapen energetikoaren mende badaude, erregelamenduz ezarritako gutxienezko kalifikazio-irizpideak aplikatuko dira.</li> <li>- Pixkanaka hidrokarbuo likidoak izan beharrean ingurumenarekiko errespetuzkoagoak diren energiekin ordeztzeko, beharrezko diren neurri arautzaileak ezarriko dira, helburua izanik erabat ordezte 2030eko abenduaren 31rako.</li> <li>- Energia-sistema zentralizatuen edota alternatibo bidezko hornidurarako, bai eta autokontsumorako sistemak instalatzeko ere, azterketa egiteko betebeharra izateko irizpideak erregelamenduz zehaztuko dira, helburua izanik dagoeneko dauden etxebizitza-komunitateen eraikin-parkeetan efizientzia energetikoa, ekonomikoa eta ingurumenekoa hobetzea.</li> <li>- Garraioaren arloan jasangarritasuna garatzea ahalbidetzeko, garaje komunitarioetan arautu egingo dira ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioak ezartzea ahalbidetzeko irizpideak eta baldintzak.</li> </ul> <p>Etxebizitza berrietan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erregelamenduz zehaztutako gutxienezko kalifikazio-irizpideak aplikatuko dira.</li> </ul>		

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hirigintza-garapen berriek, bero-sistemarako energia-hornidurarako sistema zentralizatuak izan beharko dituzte, lehentasuna izanik iturri berriztagarrikoak, betiere teknikoki eta ekonomikoki bideragarria denean. Obligazio hori betetzeko baldintza zehatzak erregelamenduz ezarriko dira.</li> <li>- Aparkaleku komunitarioetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen sistemak jartzea, eta bizikletak erabiltzea eta aparkatzea lagunduko duten espazioak, erregelamenduz ezarriko baitira.</li> </ul> <p>Aurrekoaz gain, honako jarduerak ere burutu daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udaletik etxebizitzan eraikuntza-eskaerei erantzuten zaienean ezar ditzakeen energiaren jasangarritasunari eta klimaren babesari lotutako baldintzen inguruko azterketa egin eta horien ezarpenari buruzko hausnarketa burutu.</li> <li>- Beste udaletako esperientziak bildu (Donostiako eta Arrasateko energiaren inguruko ordenantzak, esate baterako).</li> </ul>					
<b>Arduradun nagusia</b>	ENERGIA TEKNIKARIA ETA UDAL ARKITEKTOA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2026-2027	<b>Amaiera urtea</b>	2027	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Ertaina		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>		0 €	
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>	4/2019 legearen 41. atalaren betetzea.					
<b>Sektorea</b>	Udala	<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>			-	
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea	<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>			-	

<b>Kodea</b>	2.1.2	<b>Ekintza</b>	<b>Etxebizitza-erakinen birgaitzean energia-eraginkortasuna sustatu.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Programa</b>	<b>ETXEBIZITZEN SEKTOREAN ENERGIAREN ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA KALTEBERATASUN ENERGETIKOAREN EGOEREI AURRE EGITEA</b>					
<b>Deskribapena</b>	<p>Etxebizitzetan energia-eraginkortasuna bultzatzeko hainbat jardura burutu daitezke: Kanpoko arotzeria berritzea; airea girotzeko sistemak eraberritzea, eta horien ordez ekipo eraginkorragoak jartzea, edo energia berriztagarriak erabiltzen dituztenak (aerotermita, geotermita, eguzki-energia fotovoltaikoa, termikoa...); galdara indibidualen ordez galdara eraginkorragoak jartzea (biomasa, kondentsazioko galdara berria edo tenperatura baxukoak); sukaldean eta bainugelan eraberritze-lan jasangarriak egitea; instalazio elektrikoa eraberritzea; etxebizitzan isolatzaile termikoak jartzea eta inguratzailea hobetzea; etab.</p> <p>Herritarra beraien etxebizitzetan neurri horiek hartzera bultzatzeko, Udalak honako jarduerak egin ahal ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Oarsoaldeko energia-bulegoak Oartzunen ere aurrez aurreko aholkularitza eskaintzea (2024ko apirilaz geroztik Mendiburu kaleko 3. zenbakian, astelehenetan 9:00etatik-14etara eta 14:30etatik 16:00etara, ematen zaie zerbitzua herritarrei). Online hemen: <a href="https://oarsoenergia.eus/">https://oarsoenergia.eus/</a> .</li> <li>- Oarsoaldeko etxebizitzak birgaitzeko zerbitzuaren berri ematea (energiaren bulegoaren bidez, udalera birgaitze-obrak egiteko asmoz obra-baimena eskatzen dituzten herritarrei udaletxean bertan informatuz, etab.).</li> <li>- Udalaren diru-laguntza lerroak sortzea etxebizitzetan energia-eraginkortasuna hobetzeko, eta beste administrazio batzuen diru-laguntzen zabalkundea egitea.</li> <li>- Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergaren (EIOZ) hobari fiskalak berrikustea eta herritarrei ezagutzera ematea.</li> <li>- Ondasun higiezinaren gaineko Zergaren (OHZ) hobariak ezartzea urte kopuru jakin batean eta hori ezagutzera ematea.</li> <li>- Informazioa, formazioa eta sentsibilizazioa.</li> </ul>					
<b>Arduradun nagusia</b>	ENERGIA TEKNIKARIA ETA GOBERNU-TALDEA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasi</b>	2024-2025	<b>Ama</b>	2025	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Altua		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>		Udal baliabideekin gauzatzeko ekintza.	

<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA		
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-		
<b>Oharrak</b>	4/2019 legearen 41. atalaren betetzea.		
<b>Sektorea</b>	Udala	<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>	-
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea	<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>	-

<b>Kodea</b>	2.1.3	<b>Ekintza</b>	<b>Baldintza oso kaxkarretan dauden etxebizitzak eta egoera zaugarrian dauden familien egoera hobetzeko udal laguntzak indartzea.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Programa</b>	<b>ETXEBIZITZEN SEKTOREAN ENERGIAREN ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA KALTEBERATASUN ENERGETIKOAREN EGOEREI AURRE EGITEA</b>					
<b>Deskribapena</b>	<p>Gehienetan egoera zaugarrian dauden familiak bizi diren etxebizitzek baldintza txarrak dituzte eta birgaitze behar handia izaten dute. Honelako egoera bizi duten herritarrek pobrezia energetikoa jasan dezakete, fenomeno konplexua eta dimentsio aniztuna, hainbat arlori eragiten diona: osasunari, ekonomiari, etxebizitzari eta ingurumenari, besteak beste.</p> <p>Gizarte zerbitzuetatik gaiari heldu izan bazaio ere, beharrezkoa da zehazki pobrezia energetikoko egoeran dauden familien egoera zehatza egin eta honen aurrean jarduteko gida edo protokoloa lantzea, udal laguntza indartu ahal izateko.</p> <p>Besteak beste, honako jarduerak aurrera eraman daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Etxebizitzen isolamendu-baldintza txarrak dituztenei bideratutako aholkularitza.</li> <li>- Halako egoeran dauden etxebizitzen isolamendua hobetzeko laguntzen baldintzak eta jaso daitezkeen onurak berrikustea.</li> <li>- Egoera zaugarrian dauden familien berokuntza egoera hobetzeko laguntzak bideratzea (1/2024 Legearen 39. artikulua)</li> </ul>					
<b>Arduradun nagusia</b>	ENERGIA TEKNIKARIA, GIZARTE-TEKNIKARIA ETA GOBERNU-TALDEA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2024-2025	<b>Amaiera urtea</b>	2025	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Altua		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>		0 €	
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>	-					
<b>Sektorea</b>	Udala		<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>		-	

Arintzea/egokitzea laguntzen dio	Arintzea	Saihestutako isurketak (t CO <sub>2</sub> )	-
----------------------------------	----------	---	---



<b>Kodea</b>	2.1.4	<b>Ekintza</b>	<b>Oarsoaldeko Energia Bulegoak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruko informazioa herritarrei iristeko neurriak martxan jartzea.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Programa</b>	<b>ETXEBIZITZEN SEKTOREAN ENERGIAREN ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA KALTEBERATASUN ENERGETIKOAREN EGOEREI AURRE EGITEA</b>					
<b>Deskribapena</b>	<p>Oarsoaldeko Energia Bulegoak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruko informazioa herritarrei jakinaraztean datza. Horretarako, udalak erabili ohi dituen komunikazio-euskarriak balia ditzake (prentsa-oharrak, sare sozialak, udal bulegoetan energia bulegoaren berri ematen duten esku-orriak, udal web gunean energia-bulegoaren atala sortzea edo <a href="https://oarsoenergia.eus/">https://oarsoenergia.eus/</a> web-orrira daraman “banner” bat jartzea, etab.).</p> <p>Oarsoaldeko Energia Bulegoak eskaintzen dituen zerbitzuen artean hauek nabarmendu daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Kalteberatasun-energetikoaren aurkako zerbitzua: zaurgarritasun egoeran dauden edo egon daitezkeen herritaren sentsibilizazioa, aholkularitza, prestakuntza eta informazioa helaraztea sustatuz.</li> <li>- Etxebizitzen energia eraginkortasun areagotzeko eta zehazki etxebizitzen birgaitze energetikorako aholkularitza zerbitzua. .</li> </ul> <p>Energia bulegoa Oiarzunen astelehenetan irekita dago eta aurrez aurreko zerbitzuaz gain, web orria (<a href="https://oarsoenergia.eus/">https://oarsoenergia.eus/</a>), telefona (943-34-41-60) eta eposta baditu (energia@oarsoaldea.eus).</p>					
<b>Arduradun nagusia</b>	ENERGIA TEKNIKARIA ETA KOMUNIKAZIOKO ARDURADUNA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2024-2025	<b>Amaiera urtea</b>	2025	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Altua		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>		Udalaren berezko komunikazio baliabideak.	
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					

<b>Oharrak</b>	-		
<b>Sektorea</b>	Udala	<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>	-
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea	<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>	-

<b>Kodea</b>	2.1.5	<b>Ekintza</b>	<b>Herrian bertan eragile ezberdinek egiten dituzten energiaren arloko inbertsio eta proiektuak ezagutarazi eta praktika on moduan komunikatu auzo ezberdinetan.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Programa</b>	<b>ETXEBIZITZEN SEKTOREAN ENERGIAREN ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA KALTEBERATASUN ENERGETIKOAREN EGOEREI AURRE EGITEA</b>					
<b>Deskribapena</b>	Herrian bertan eragile ezberdinek (etxebizitza zehatzetako bizilagunek, udalak, enpresek, ...) egiten dituzten energiaren arloko inbertsioak edo/eta proiektu arrakastatsuak (birgaitze energetikoko obrak, energia berriztagarrien instalazioa, energia berriztagarrien komunitateak, etab.) identifikatzeko bideak ezarri eta ondoren praktika on moduan herritarrei (auzo ezberdinetakoei) ezagutarazi eta komunikatu ahal izateko programa abian jartzean datza.					
<b>Arduradun nagusia</b>	ENERGIA TEKNIKARIA ETA KOMUNIKAZIOKO ARDURADUNA					
<b>Beste arduradunak</b>						
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2024-2025	<b>Amaiera urtea</b>	2025	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Ertaina		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>	Udalaren berezko komunikazio baliabideak.		
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>	-					
<b>Sektorea</b>	Udala		<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>	-		
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea		<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>	-		

<b>Kodea</b>	2.2.1	<b>Ekintza</b>	<b>Udalerriko enpresetan eta saltoki txikietan energia kudeaketarako tresnak eskuragarri jartzea, beraien energia-beharrak aztertzeo aukerak erraztea eta irtenbide komunak bilatzea nahiz garatzen laguntzea, eskualdeko garapen agentziarekin elkarlanean.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Programa</b>	<b>EKONOMIA-JARDUERETAN ENERGIAREN ERAGINKORTASUNAREN ETA BERRIZTAGARRIEN ALDEKO APUSTUA EGITEA ERRAZTEA</b>					
<b>Deskribapena</b>	<p>Euskal herri administrazioek, EAEko energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean xedatutakoari jarraikiz, eta haien eskumenen esparruan, energia-jasangarritasunari buruzko informaziorako eskubidea bermatu beharko dute, jarraibideen eta tekniken zabalkundea eginda. Besteak beste honako jarduerak aurrera eraman ahal ditu Udalak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Udalak finantzaketa-tresnak eta -instrumentuak sortuko ditu, energia-eraginkortasuneko, energia berriztagarrien ezarpeneko eta garraio eraginkor eta iraunkorreko proiektuak sustatzeko jarduera ekonomikoko sektore ezberdinetan.</li> <li>- Udalak, lehen sektoreko jardueren arloan dituen eskumenen esparruan, berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea sustatuko du, bai eta haien hustubide-ahalmena handitzea ere.</li> <li>- Udalaz gaindiko erakundeek sortzen dituen enpresei begirako laguntza-tresnen berri ematea Oarsoaldea garapen agentziaren bidez</li> </ul>					
<b>Arduradun nagusia</b>	ENERGIA TEKNIKARIA ETA ZINEGOTZIA					
<b>Beste arduradunak</b>	OARSOALDEA					
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2026-2027	<b>Amaiera urtea</b>	2027	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Ertaina		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>		0	
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					

<b>Oharrak</b>	-		
<b>Sektorea</b>	Udala	<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>	-
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea	<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>	-

<b>Kodea</b>	2.2.2	<b>Ekintza</b>	<b>Oiartzungo industria sektorearen energia kontsumoa eta BEG isurpenak azertu eta eraginkortasuna hobetzeko egon daitezkeen baliabideen berri eman Oarsoaldea garapen agentziarekin lankidetzan.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Programa</b>	<b>EKONOMIA-JARDUERETAN ENERGIAREN ERAGINKORTASUNAREN ETA BERRIZTAGARRIEN ALDEKO APUSTUA EGITEA ERRAZTEA</b>					
<b>Deskribapena</b>	<p>Industria sektorearen energia-kontsumoa eta BEG isurpenak azertu eta eraginkortasuna hobetzeko egon daitezkeen baliabideen berri ematean datza. Ekintza hau aurrera eramaterako orduan, Oarsoaldea garapen agentziarekin lankidetzan arituko da Udala.</p> <p>Udala Udalsarea 2030eko kide izanda, bertako kide diren udalei eta eskualdeko entitateei zuzendutako Berotegi Efektuko Gasen eta udalaren karbono-aztarnaren kalkuluekin laguntzarekin bat egin dezake industria-sektoreen energia-kontsumoen eta BEG emisioen kalkulua egiteko (informazioa hemen: <a href="https://www.udalsarea2030.eus/tokiko-ekintza-ebaluatze-programak">https://www.udalsarea2030.eus/tokiko-ekintza-ebaluatze-programak</a>).</p>					
<b>Arduradun nagusia</b>	ENERGIA TEKNIKARIA					
<b>Beste arduradunak</b>	OARSOALDEA					
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2026-2027	<b>Amaiera urtea</b>	2027	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehenetasuna</b>	Ertaina		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>	0		
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					
<b>Oharrak</b>	Zeharkako eragina energia aurrezpen eta saihestutako isurketan.					
<b>Sektorea</b>	Udala		<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>	-		
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea		<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>	-		

<b>Kodea</b>	2.2.3	<b>Ekintza</b>	<b>Lehen sektorearekin lotutako ekoizpena egiten duten zenbait baserrian energia auditoretzak egitearen bidez lehen sektorearen energia kontsumoen azterketa osatu eta nekazari eta abeltzainekin batera gastu energetiko eta ekonomikoa murrizteko neurriak adostu.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Programa</b>	<b>EKONOMIA-JARDUERETAN ENERGIAREN ERAGINKORTASUNAREN ETA BERRIZTAGARRIEN ALDEKO APUSTUA EGITEA ERRAZTEA</b>					
<b>Deskribapena</b>	<p>Euskal herri administrazioek, EAEko energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean xedatutakoari jarraikiz, eta haien eskumenen esparruan, energia-jasangarritasunari buruzko informaziorako eskubidea bermatu beharko dute, jarraibideen eta tekniken zabalkundea eginda. Udalak, zehazki lehen sektoreko jardueren arloan dituen eskumenen esparruan, sektoreko berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea sustatuko du, bai eta haien hustubide-ahalmena handitzea ere. Honetarako, energia auditoretzak egitearen bidez lehen sektorearen energia kontsumoen azterketa osatu eta nekazari eta abeltzainekin batera gastu energetiko eta ekonomikoa murrizteko neurriak adostuko dira.</p> <p>Ekintza hau Behemendirekin lankidetzan egingo da. Lehen sektorearekin lotutako ekoizpena egiten duten baserrien artean gaztagileak, esnegintzari lotutakoak, elikagaien ekoizpenean jarduten dutenak, etab. sartuko lirateke.</p>					
<b>Arduradun nagusia</b>	ENERGIA TEKNIKARIA ETA ZINEGOTZIA					
<b>Beste arduradunak</b>	BEHEMENDI					
<b>Epea</b>	<b>Hasiera urtea</b>	2026-2027	<b>Amaiera urtea</b>	2027	<b>Ekintza jarraitua?</b>	Ez
<b>Lehentasuna</b>	Ertaina		<b>Aurreikusitako kostua (€)</b>	Lehen sektoreari lotutako ustiategiaren ezaugarrien arabera zehaztuko da egin daitekeen auditoretzaren aurrekontua.		
<b>GJH</b>	7 ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA					
<b>Erlazionatutako plana:</b>	-					

<b>Oharrak</b>	Zeharkako eragina energia aurrezpen eta saihestutako isurketan.		
<b>Sektorea</b>	Udala	<b>Aurrezpen energetikoa (kWh)</b>	-
<b>Arintzea/egokitzea laguntzen dio</b>	Arintzea	<b>Saihestutako isurketak (t CO<sub>2</sub>)</b>	-



<b>Kodea</b>	2.2.4	<b>Ekintza</b>	<b>Autokontsumorako energia berriztagarriak ekoizteko sistemak martxan jartzen laguntzeko baliabide ezberdinak aztertzea eta bideragarriak direnak ezartzera bultzatzea.</b>			
<b>Helburu Estrategikoa</b>	<b>UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA</b>					
<b>Programa</b>	<b>EKONOMIA-JARDUERETAN ENERGIAREN ERAGINKORTASUNAREN ETA BERRIZTAGARRIEN ALDEKO APUSTUA EGITEA ERRAZTEA</b>					
